# ZARAITZUKO EGUNKARIA

cpotsagi@educacion.navarra.es **AZKEN BERRIAK!** otsagibhi.educacion.navarra.es

## ZARAITZUKO ESKOLA LARRIKI KEZKATUA IKASLEEN AITEKIN

**Azken asteetan kezka sortzen hasi da Zaraitzuko Eskolako irakasleen artean. Kezka horren jatorria aitek duten lan baldintzak dira. "Egun guzti-guztia lan egitera behartuta daude", dio ikasketa buruak, "ez dute denbora librerik guraso bileretara etortzeko". Josepa Ciencia tutoreak esan duenez, urtero saiatzen da aitei telefonoz deitzen haiekin biltzeko,**

**.**

**"batzuek ez dute telefonorik hartzen, eta besteek lanean daudela esaten didate, baina lanean goizeko zortzietatik arratsaldeko zortziak arte? Hori salatu beharra dago!" Egoeraren berri eman eta enpresei azalpenak eskatzeko elkarretaratzea deitu du Zaraitzuko Eskolak datorren ostiralerako, "Stop lan prekarizatua! Aitek bizitzeko eskubidea dute" lelopean.**



## ESKOLAN TOPATU DUTE HAINBAT EGUNEZ GALDUTA EGON DEN AITA



**Eskolako garbitzaile batek topatu du Juanper Dido, 12 urteko gazte baten aita, hainbat egunez galduta egon ondoren. Poliziak hura aurkitzeko hamarnaka kide zituen lanean, eta Zaraitzu ibarreko herri eta inguruko mendi eta basoak arakatzen ziharduen. "Ez genuen uste eskolan topatuko genuenik", azaldu du Francisco Ronel poliziak, "bere familiari eta lagunei galdeketa egin genien, eta eskolara sekula joan gabekoa zela esan ziguten". Garbitzaileak adierazi duenez, arratsaldeko bostak aldera ikasgela batean lanbasa pasatzen ari zela aita ikusi zuen aulki batean eserita. "Uste zuen bilera bat zuela, baina ez zenez inoiz joan eskolara, ez zekien egun, ordu eta toki egokian ote zegoen", esan du garbitzaileak. Aitarekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta esan digu bere bikotekidea Iruñean zegoela semearekin medikuan, eta sukaldean zintzilikatuta duten egutegian *reunión* idatzia zegoela, beraz, ondorioztatu zuela eskolako zerbait garrantzitsua izango zela. Azkenean, bilera hori bizilagunekin zen, etxeko fatxadari buruz hitz egiteko.**

*Egunkari hau ironia erabiliz idatzi da. Gure maitasun osoarekin sortu dugu gure ikasleen aitentzat, kontzientziak esnatzeko asmoz.*

# ZARAITZUKO KIROLARIEN MARKAK LURRETIK

Kezka handia sortzen ari da Zaraitzu bailaran kirolarien markak asko jaitsi direlako azkenaldian. Antza denez, guraso bileren ondorioz aitek ezin dute lehen bezain beste kirol egin, eta hainbat kirol elkartek arrangura adierazi dute aiten kirol markak okertzen ari direlako. “Duela urte batzuk, Taplara igotzea ez zen esfortzua txirrindularientzat”, esan digute Irati Xtrem-eko antolatzaileek, “orain, ordea, kostatu egiten zaie aldapan gora joatea, geroz eta gutxiago entrenatzen dutelako”. Diotenez, aitek bileretara joaten jarraitu behar badute, ez dute izanen kirola egiteko aukerarik, eta horrek ondorio larriak ekar ditzake bailarako irudiarentzat. “Egoera jasangaitza da”, dio Nakor Rikalari aitak, “lehen arratsaldeak libre nituen korrika egin eta bizikletan ibiltzeko, baina orain ebaluazioen amaieran haurren tutoreekin bildu behar naiz, eta arratsalde horietan ezin dut deus egin. Gainera neguan goiz iluntzen du eta arratsalderik gabe geratzen naiz”.
Eskolako arduradunek esan digutenez, guraso bilera orokor bat egoten da ikasturte hasieran, eta ebaluazio bakoitzaren amaieran tutoreak bilera batera dei ditzake gurasoak.



# LEHENENGO ALDIZ AITA BATEK IRAKASLE BAT EZAGUTU DU HAMARREN ARTEKO IDENTIFIKAZIO-SAIO BATEAN

Pasa den ostiralean, irailak 17, identifikazio-saioa bat egon zen eta aita batek, lehenengo aldiz Zaraitzuko Eskolako historian, irakasle bat ezagutu zuen hamarren artean. “Hasieran uste nuen nahastu egin zela, inoiz ez nuelako eskola barruan ikusi”, adierazi zuen irakasleak, “baina nire izena esan zuenean, ezin nuen sinetsi”. Gertaerak irakasleak zein amak harritu ditu. Esperanza Perdida, Zaraitzuko eskolara doan haur baten amak, hitzik gabe zegoela esan du, eta dioenez bere bikotekideak “ez daki gure semearen tutorearen izena”. Eskolako zuzendaria itxaropentsu agertu da, eta espero du etorkizunean aita gehiagok ezagutzea haien seme eta alaben irakasleak. Aita honek ez du adierazpenik egin nahi izan honen harira, kasualitate edo zortea izan ote den, edo benetan irakaslea ezagutzen zuenaren zalantza zabalduz.

# ABEREEN SALNEURRIA JAITSI DA AITEK HAIEN SEME-ALABEN HEZKUNTZAN DUTEN GEHIEGIZKO INPLIKAZIOAGATIK

Bailarako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Bulegoak jakinarazi du abereen salneurria gainbehera bizian jaisten ari dela Zaraitzu Ibarrean. Adierazi dute arrazoi nagusia aita abeltzainek haien seme-alaben zaintzari eskaintzen dioten denbora dela, abereen beharrei arreta jarri ordez. Duela urtebeteko datuekin alderatuta, abereen salneurria %40 jaitsi da. “Egoera oso larria da, pobrezian erortzeko zorian dauden familiak daude”, adierazi du Lobo Cuernavacak, zonaldeko abeltzain batek, “ez zait gaizki iruditzen aitak eskolako bilera batzuetara joatea, baina abereei ez badiete kasurik egiten, egoera jasangaitza izanen da”. Familiarentzat Denborarik Ez duten Aitak elkartetik esan digute eskolak bere partetik gehiago jarri behar lukeela, eta “ezertarako balio ez duten” hainbeste bilera antolatzeari utzi, zeren eta “badakigu nola doazen gure seme-alabak ikasketetan”.

# DIARIO DE SALAZAR

cpotsagi@educacion.navarra.es **AZKEN BERRIAK!** otsagibhi.educacion.navarra.es

## GRAN PREOCUPACIÓN EN LA ESCUELA DE SALAZAR CON LOS PADRES DEL ALUMNADO

En las últimas semanas se ha creado preocupación entre el profesorado de la Escuela de Salazar. El origen de dicha preocupación está en las condiciones de trabajo de los padres. "Están obligados a trabajar durante todo el día", comenta la jefa de estudios, "no tienen tiempo libre para venir a las reuniones de padres y madres". Según ha dicho la tutora Josepa Ciencia, cada año intenta llamar por teléfono a los padres para reunirse con ellos, "unos no cogen el teléfono y otros me dicen que están trabajando, ¿pero trabajando de ocho de la mañana a ocho de la tarde? ¡Eso debemos denunciarlo!" La Escuela de Salazar ha organizado una concentración para el siguiente viernes, bajo el lema "¡Stop trabajo precarizado! Los padres tienen derecho a vivir", con el fin de informar sobre la situación y pedir explicaciones a las empresas.



## HALLADO EN LA ESCUELA EL PADRE QUE LLEVABA DÍAS PERDIDO



Una limpiadora del colegio ha encontrado a Juanper Dido, el padre de un joven de 12 años, después de estar varios días en paradero desconocido. La policía tenía a decenas de efectivos trabajando para encontrarlo y estaban registrando los pueblos de Salazar y los montes y bosques de alrededor. "No creíamos que lo encontraríamos en el colegio", ha explicado el agente Francisco Ronel, "interrogamos a su familia y amistades y nos dijeron que jamás había estado en el colegio". Según ha comentado la limpiadora, estaba pasando la fregona en un aula sobre las cinco de la tarde cuando vio al padre sentado en una silla. "Creía que tenía una reunión, pero como nunca había acudido a la escuela, no sabía si estaba en el día, hora o lugar correctos", ha dicho la limpiadora. Hemos tenido la oportunidad de hablar con el padre y nos ha comentado que su pareja estaba en Pamplona con el hijo en el médico y como en el calendario que tienen colgado en la cocina ponía la palabra *reunión*, dedujo que sería algo importante de la escuela. Al final, resultó que la reunión era con el vecindario, para hablar de la fachada de la casa.

*Este periódico se ha escrito usando la ironía. Ha sido creado con todo nuestro cariño para los padres de nuestro alumnado, con la intención de despertar conciencias.*

# LAS MARCAS DE LOS DEPORTISTAS DE SALAZAR POR LOS SUELOS

Está creciendo una gran preocupación en el valle de Salazar porque las marcas de los deportistas han bajado mucho últimamente. Parece ser que a raíz de las reuniones de padres y madres los padres no practican tanto deporte como antes y varias asociaciones deportivas han mostrado preocupación porque las marcas deportivas de los padres han empeorado. “Hace algunos años, subir a Tapla no era esfuerzo para los ciclistas”, nos ha dicho la organización de Irati Xtrem, “ahora, en cambio, les cuesta subir cuesta arriba, porque entrenan cada vez menos”.
Según comentan, si los padres tienen que seguir yendo a las reuniones, no tendrán tiempo de practicar deporte y eso podría traer consecuencias graves para la imagen del valle. “La situación es insostenible”, comenta el padre Nakor Rikalari, “antes tenía las tardes libres para ir a correr o a andar en bicicleta, pero ahora al final de las evaluaciones tengo que reunirme con las tutoras de mis hijas y en esas tardes no puedo hacer nada. Además, en invierno oscurece muy pronto y me quedo sin tardes”.
Las personas responsables del centro nos comentan que suele haber una reunión de padres y madres general a principios del curso escolar y al final de cada evaluación las personas tutoras pueden llamar a las madres y padres para otra reunión.



# POR PRIMERA VEZ UN PADRE HA RECONOCIDO A UNA PROFESORA DE ENTRE DIEZ EN UNA RUEDA DE RECONOCIMIENTO

El pasado viernes, 17 de septiembre, tuvo lugar una rueda de reconocimiento en donde un padre, por primera vez en la historia de la Escuela de Salazar, reconoció a una profesora de entre diez. “Al principio pensaba que se había equivocado, porque nunca lo había visto dentro del centro escolar”, declaró la profesora, “pero cuando dijo mi nombre, no me lo podía creer”.

El suceso ha impresionado tanto a docentes como a madres. Esperanza Perdida, madre de un niño que acude al colegio de Salazar, decía no tener palabras, porque su pareja “ni siquiera sabe el nombre de la tutora de nuestro hijo”. El director del centro se muestra esperanzador y espera que en el futuro más padres conozcan a docentes de sus hijos e hijas. El padre en cuestión no ha querido hacer ninguna declaración al respecto, sembrando la duda de si ha sido pura casualidad o suerte, o si de verdad conocía a la profesora.

# CAE EL PRECIO DEL GANADO POR LA EXCESIVA IMPLICACIÓN DE LOS PADRES EN LA EDUCACION DE SUS HIJOS E HIJAS

La Oficina Comarcal de Agricultura, Ganadería y Alimentación ha informado de que el precio del ganado está cayendo en picado en el Valle de Salazar. Apuntan que la principal razón es todo el tiempo que los padres ganaderos dedican al cuidado de sus hijos e hijas, en vez de atender las necesidades de su ganado.
Comparado con los datos de hace un año, el precio del ganado ha bajado un 40%.

“La situación es gravísima, hay familias al borde de la pobreza”, comentaba Lobo Cuernavaca, un ganadero de la zona, “no me parece mal que los padres acudan a las reuniones del centro escolar, pero si no atienden a su ganado, la situación será insostenible”. Desde la asociación Padres Ganaderos sin Tiempo para la Familia nos comentan que el centro escolar debería poner más de su parte y dejar de organizar tantas reuniones que “no sirven para nada”, porque “ya sabemos cómo van nuestros hijos e hijas en los estudios”.